

Arrasate

1996ko
Ekainak 28
326. zenb.

P R E S S U



Itzali da garra

Herria sutan
jarri duten
jaien
errepasoa
egunez egun



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

Adi!
Eguerditan
zabalik!

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak,
medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE



OPEL

UDA 96 KANPAINA

Takolo Autoak, Opel banatzaile ofizialak, UDA 96 KANPAINA eskaintzen dizu uda honetarako.

OPEL CORSA: 3 edo 4 ate **1.265.100 ptatik.**
ordaindu 3 eraman 4

OPEL ASTRA: 4 edo 5 ate **1.773.770 ptatik.**

OPEL VECTRA: 4 edo 5 ate **2.517.500 ptatik.**

Edozein informaziorako zuen zain gelditzen gara gure instalakuntzetan.



Araba Etorbidea, 3 (Eskatu Pabiloia)
Tfnoa: 79 05 86
ARRASATE

Festak

Egun magikoak ziren festetakoak haurtzaro garaian. Orduan gertatzen ziren urte osoan gertatzen ez ziren gauzak.

Lehengusu eta izeba-osabak etortzen ziren etxera. Ezkatzeko habe batetik zintzilika soka jarriz, hura izaten zen kolunpioan ibiltzeko aukera, festak pasa bezain azkar bukatzen zena, kolunpioa kentzen zuten eta.

Orduan etortzen ziren baita ere urrutiko izeba-osabak, eta ohi ez bezalako bazkari oparoa izaten zen holakoan. Umeek aparte jaten zuten eta nagusiak ziren mahai berezian esartzen zirenak. Eta han entzuten ziren, bazkal ondoren, ordura arte inoiz entzun gabeko abestiak, kanpotik zetozenak zekarzkitenak.

Urtean zehar, ez zen honelako patxadarik hartzen bazkal ostean: beti zegoen zerbait egiteko. Orduan berriz, ez zuten mahaitik altxatzeko presarik izaten. Bazkal osteko kantaldi horrek merezi zuen hartutako lana.

Familiartekoak festetan etxean bildu ondoren, derrigorrezkoa zen gero haien herrietako festetara joatea. Bat edo bi lagun joaten ziren etxeko onginahaiaren izenean.

Pentsa ezina zen festetan Mezetara ez joatea. Gainera, Meza Nagusira joatea zen jai giroari zegokiona. Hala ere, Meza Nagusira joango ziren umeak eta gizonak, baina goizeko mezetara joaten ziren emakumeak, sei t,erdiak aldera, gero

bazkaria prestatu ahal izateko. Meza Nagusia zen jantzi berriren bat izan ezker estrainatzeko tenorea ere, jaietako apainduz. Meza ondoren, pilota partidua ikustera joaten zen jendea.

Gazteek, orduan zuten herrian musika eta dantza egiteko aukera, kanpoko neska-mutilak ezagutzeko eta gainera, gurasoen aldetik libertade gehiago etxera erretiratzeko orduetan. Egia da hau neskendako zela batez ere, mutilak beste libertade batekin ibili ohi zirelako.

Beste modukoak dira orain festak: geroz eta gutxiago lotzen dira familiako harremanak festen inguruan, indarra hartu dute elkarteetako afariak, noiz nahi tabernetan musika entzun eta dantza egiten da, mezetara joaterik ez da planteatzen eta ohikoa da noiznahi gaupasak egitea. Eta jende asko da herriko festak baino nahiago duena kanpora joatea.

Badute hala ere festak zerbait berezia: kalean dago festa eta musika, ez bakarrik areto itxietan. Eta ekitaldi propioak antolatzen ditu herri bakoitzak: Errementari dantza eta San Juan sua aipatu nahi nituzke batez ere.

Eguneroko presak eta betebeharrak utzi eta patxada hartzeko garaia dira festak. Ekintza atsegin batzuen bidez herritarrok erlazionatu eta kanpotarrekin ere harremanetan jartzeko garai aproposa.

RUFINA OLASAGASTI

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Memesa

79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura
Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Iberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiliano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Manó Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkiak: Arrasate Press eta Jose Luis Calleja

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 28

Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Larunbata 29

Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

Igandea 30

Egunez eta gauzez: Amezua. Santamaina.

Astelehena 1

Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
 Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara.

Asteartea 2

Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
 Egunez eta gauzez: Puy. Bergara.

Asteazkena 3

Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
 Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara.

Osteguna 4

Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
 Egunez eta gauzez: Estella. Bergara.

28 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Jane Eyre" 7etan eta 10etan.
- **GAY ETA LESBIANEN EGUNA**
 Gay eta Lesbianen askatasuna aldarrikatzeko manifestazioa Seberon arratsaldeko 7.30etan. Egizan eta Emakumeen Asanbladak antolatuta.
- **DONOSTIAKO ORFEOIAREN MENDEURRENA**
 Arratsaldeko 5etan Udaletxeko pleno aretoan Donostiako Orfeoari harrera. 6etan Herri kontzertua Herriko plazan. Gaueko 8.30etan kontzertua Amaia antzokian.

29 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Jane Eyre" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ITOITZKO JIRA**
 Irati eta Urrobi haranetatik zehar korrika. Ekintza horretara joateko Besaidek autobusa antolatu du. Irteera eguerdikoko ordubatean.
- **ZOKKETA IRATIN**
 "Preso bat Egin bat" zokketako irabazlea ez da azaldu. Hori dela eta, zapatuan eguerdikoko ordubata t'erdietan zokketa berri bat egingo da Irati tabernan.
- **ELKARRIKO MANIFESTAZIOA**
 "Hitz hutsak baino gehiago... Euskal Herrian bidezko bake-prozesu baterako" lemapeko manifestazioa Bilbon. Autobusa Garibaitik irtengo da arratsaldeko 4etan eta manifestazioa 5.30etan hasiko da Bilboko La Casillan.

30 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Decisión crítica" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Eskoriatza. Arlaban Gaina, Landa, Betoño, Gasteiz, Azazeta, Gasteiz, Landa, Aretxabaleta eta Arrasate. Guztira 100 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterondik.

GAY ETA LESBIANEN EGUNA

Ekainaren 28an Gay eta Lesbianen askatasuna aldarrikatzeko manifestazioa Seberon arratsaldeko 7.30etan. Egizan eta Emakumeen Asanbladak antolatuta manifestazioa.



1 ASTELEHENA

• ZINEA

"Decisión crítica" 7etan eta 9.30etan.

2 ASTEARTEA

• ZINEA

"Decisión crítica" 7etan eta 9.30etan.

KANPOKO LOREN APAINKETA


Ibai Arte elkarteak kanpoko loren IV. apainketa lehiaketa antolatu du. Ez da beharrezkoa izena ematea. Saria emateko orduan balkoi, miradore eta leihoetako edertasuna eta bariatatea hartuko da kontuan. Parte hartzeko epea uztailaren 19ra arte egongo da zabalik. Hiru sari banatuko dira: lehenarentzat 35.000 pta., bigarrenarentzat 25.000 pta. eta hirugarrenak 10.000 pta. jasoko ditu.

PINTURA ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN

Uztailaren 7ra arte Arrasateko Margo taldearen erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: lanegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbata eta jaiegunetan eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

PESAKO ORDUTEGI ALDAKETA

Uztailaren batetik aurrera, PESA autobus enpresak udako ordutegi berria abian jarriko du. Bezeroek Donostia, Eibar, Bergara, Gasteiz eta Bilboko leihatiletan jaso ahal izango dituzte ordutegi berriak edota 902-101210 zenbakira deituz.



GAZTEAK ETA INTSUMISIOA VII. ARGAZKI LEHIAKETA

Lehiaketa bi kategoriatan banatuko da: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urte bitarteko edozein. Gaia: Gazteak eta Intsumisioa. Formatoa A mailan librea, B mailan gutxienez 18x24 zm, gehienez 30x40 zm. Argazki guztiak lema batez sinatu behar dira eta helbide honetara bidali: Udaleko Gazte Zerbitzua, Udaletxea. 20.500 Arrasate (Gipuzkoa). Lanak aurkezteko epea urriaren 11an bukatuko da.



EZERKI OINETAKO KONPONKETAK

Zabaldu berriak, Portaloitik 100 metrora!!

Maalako Errebala, 8 • ARRASATE

- Oinetako mota guztien konponketa (kalekoak, kirolekoak, mendikoak...)
- Kremaierak
- Rematxeak, ojalak, automatikoak
- Kremak, tinteak, kordioak
- Nekearen kontrako plantila bereziak
- Zientifikoki aztertuak
- Forma anatomikodunak
- Arazo guztiendako plantilak

ONGI ETORRI, konpainia onean egoteak badu abantailik.



- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5


20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

San Juan Jaiak 96

Herriko jaiei bultzada eman guran, nobedade ugariz aurkeztu zitzaizgun aurtengo San Juanetako egitaraua: goitibeheren Udalako jeitsiera, dragoi jana, Eguzki Laruren bisitaldia, bazkari Barbaroa, ATBko elkarten arteko sukaldaritza lehiaketako finala, jai-gunea bera.... Jaiak

berpizteko aurrez egindako ahalegina garrantzitsua izanik, suaren garrak dagoeneko itzali diren honetan, galdera egin behar: **Merezi izan du? Baiezko erantzuna, berriz, berehala ezpainetara, aipatutako ekintzak arrakastatsuak izan dira eta. Horren erakusgarri, hitzei baino irudiei garrantzia emanaz, goza dzazuen jaietako argazki sorta ondoren.**



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

TTUKUN




Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE

Tfnoa: 79 46 62

Ekainak

22



Intsumiso eguna San Juanekin batera

Arrasateko Talde Antimilitaristak antolatuta, aurten San Juanen egitarau barruan ospatu da Intsumiso eguna. Ostiralean kode penal berriaren aurkako manifestazioa egin zen, kode penal berriak neurri gogorrek ekartzeko eta intsumiso direnendako. Larunbata egun "handia" izan zen. Eguerdian poteo-eta trikitixaren doinuekin alaituta, eta egu-

raldiak ez zuenez lagundu, ondoren bazkaria Udaletxeko arkupetan. Arratsaldean Arrasateko musika taldeen kontzertuak izan ziren herriko hainbat tabernetan, eta gauean E.H. Sukarra taldeak kontzertua eskaini zuen goraino bete zen Gaztetxean.

Aurten hirugarren urtea izan da Intsumiso eguna egun dela.

Intsumisioa



Lander Etxabe

- Arrasate gero eta intsumituagoa da?

- Intsumitua bai baina pasiboa ere bai. Jendea intsumisioaren alde dago, intsumituak nahiko pasiboak dira. Zerbait egin behar denean betiko bostok biltzen gara, eta gure artean ere ez dago koordinazio handiegirik.

- Zertarako horrelako egun bat?

- Bizirik gaudela erakusteko.

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

• Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.

• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



Ignazio Zuloaga, 2
Tfnoa: 79 80 50
ARRASATE

Goitibeherak



Jabier Ozaeta

- Zer moduz joan da txapelketa?

- Guk uste baino istripu gehiago izan da, baina zorionez ez da ezer larririk gertatu. Iparraldekoak, bestalde, euren nagusitasuna erakutsi dute. Balorazioa egitekoan goiari eutsi diogula esango nuke, nahiz eta badauden hobetu beharreko aspektu batzuk. Aurtengo esperientziarekin hurrengo urtean hobera egingo dugula espero dut.


- Zein giro egon da?

- Eguraldiak ez du lagundu baina uste baino jende gehiago hurbildu da Udalara. Ekin-tza errepikatzen bada txapelketaren ikusgarritasuna eta jendearen parte hartzea gehituz joango dira. Ea proba hau San Juanetako egitarauan finkatzen den.



Goitibehera ederra egin zuten **Danel Goikoleak** eta **Aner Arregik**, baina istripua izan eta ez zuten froga bukatu. Hurrengoan izango da!

GOITIBEHERA LEHIAKETAREN SAILKAPENA
Iparraldetik etorritako parte hartzaileek eskuratu zituzten lehenengo hiru postuak. Lehenengo sailkatu zen Donibane-Lohitzuneko bikotea, bigarren Getarikoak eta hirugarren Zudairekoak. Laugarren postua Iñaki Linazisoro bergararrak eta Juan Maria Delgado arrasatearrak eskuratu zuten.



Goitibeherak, makala, Salvea, tanborrada, San Juan sua...

Baina izan zen besterik ere. Goizean euskal produktuen feria jarri zen Seberon. Sagardoa, txorizoak, gazta... erosteko aukera izan zen. Kirolari dagokionez futbito txapelketa jokatu zen, eta Gipuzkoako selezioa I. San Juan Futbito txapelketako irabazlea izan zen.

Arratsaldean umeendako ekintzak izan

ziren, eta Jose Mari Lasagabasterren argazkiekin osatutako erakusketak atearatu zituen. Ondoren, eguneko ekintza izarrak etorri ziren. Goizaldean, gainera, ehundaka lagun manifestatu ziren presoan Euskal Herriratzea eskatzeko. Eguna goibel esnatu arren, arratsaldeak aurrera egin ahala onera egin zuen eta gauean, ez zuen euririk egin.

ANBOTO BODEGA

Anzo giro jatorra!

Anboto, 1 behea
 Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
 Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
 Lehoiak • Ateak
 Eskailerak • Armairu enpotratuak
 Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
 Kale Txiki, 3 - behea
 Tfnoa: 77 11 20
 Faxa: 77 11 20
 ARRASATE

JUBAR

- Ate eta pertsiara automatikoak
- Automatismoak
- Mantenimendua
- Urrunerako agente-tresnak

Kataide Poligonoa, 18
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 10 20 • Faxa: 79 08 17



Tanborra jo behar izan arren "Emoitzazuz musutxuek, maitie".



MAKALA. Guztia gertu zegoen makala plazan jartzeko, baina jasotzen ari zirela makala jausi eta **Iker Zabalo** arrasatearra harrapatu zuen. Horregatik, ekintza bertan behera geratu zen. Iker Eskualde Ospitalera eraman zuten eta bi ordura alta eman zioten. Peronea apurtuta dauka Ikerrek.



ERREMENTARI DANTZA. Urtetik urtera nagusitasun handiagoa hartzen ari den dantza dantzatu zuten hainbat arrasatearrek. Musikariak eta dantzariak herriko plazara heldu zirenean Alkateak Errementari Dantza dantzatu zuen, eta ondoren sua piztu zen. Xabier Zubizarretak sutara bota zituen alpagatak.



SALVEA. Isabel Zuazubiskarrek, Juan Antonio Barriocanalek, Javier Arestik eta Kepa Andoni Bedialunetak eraman zuten San Juanen irudia Parrokiara.

JOSE LUIS CALLEJA

COMERCIOS ENTROCIEN

Arbolapetan!
Olarte, 23 • ARRASATE
Tfnoa: 77 78 27

ROBERTO ZABALA ETXENAGUSIA

- Azaleko gaixotasunak
- Dermatokosmetika eta Benereologia

(Lagun-Aro)




MENDIA JAUREGIA-INSTITUTU MEDIKUA
Erdiko Kale, 22-1. ARRASATE Tfnoa: 79 72 16

KONTULTA BERRIA!

AYLA
JANTZIDENDA

Udarako arropa guztion eskura!

Maalako Errabala, 29
ARRASATE
Tfnoa: 79 90 31



Dragoi Jana plazan, herriko rock-a Jaigunean

San Juan eguneko nobedade handiena Dragoi jana izan zen. Arratsaldeko 8etan antolatzaileak dragoiaren txuleta prestatzen hasi ziren. Txuleta onak egiteko su ona prestatu behar eta herriko plazan sukaldari trebeak ez ziren falta izan. Ordubete beranduago dragoi jateko irrikan lagun mordoak elkartu zen mahaiairean aurrean eta jai giroa izan zen nagusi. Afarian zehar era guztietako ekitaldiak ikusi ahal izan zituzten bertan bildutakoek: Txiskolako abadiñotarrak, Eider eta Juanito barriketariak, kantariak, trikitilariak eta bertsolariak. San Juan eguneko gaua beraz majikoa bihurtu zen. Plazan dragoi jana eta jai gunean rock kontzertua. Arsenal eta Altar taldeek rock musikaren soinu gogorrak jo zituzten ikusleen gozamenerako.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



ATBk antolatutako **ELKARTEAN PROGRAMAREN** lehen saria Leze Txikikoek eraman zuten, epaimahaiaren erabakiz eurek prestatu zuten eta legatzik goxoena.

Dragoi Jana



Liher Larrea

- Zer dela eta Dragoi jana?

- San Juanei bizitazuna emateko herri afari bat antolatzea bururatu zitzaigun eta jendearen erantzuna ikusita giro berezi hori lortu da.

- Nondik ekarri duzue dragoia?

- Jai Batzordeko hainbat lagun Murugain ingurura joan ginen. Dragoi aztarnak aurkitu eta harrapatzea lortu genuen. Dragoia Udaletxean egon da eta akabau ostean txuletak jatea merezi duela garbi geratu da.



58. SAN JUAN SARIA EURI ARTEAN. Txirrindulari afizionatuen lasterketa burutu zen martizenean. 122 txirrindulari 140 kilometroko ibilbideari aurre egiteko elkartu baziren ere, 33k baino ez zuten bukatu. Guztien artean azkarrena Ripolin taldeko Oscar Freire izan zen. Jon Aperribai arrasatearrak 5. tokia eskuratu zuen eta Oskar Askasibarrek 6.ena.

**DEGABEHIBA
SURADESA**



DEBA GARAIKO BEREONERATZEKO HIRIGINTZ BALTZUA
SOCIEDAD URBANISTICA DE REHABILITACION DEL ALTO DEBA

**Etxeko berritze-lanen eta erosketen dirulaguntzen gestioa.
Doaneko zerbitzua.**

Publikorako ordutegia: Astearte eta ostiraletan, 9etatik 13etara.

Arrasate Pasealekua, 5-behea (Mankomunitate barruan, San Viator parean).

Zuberoako dantzak



Jose Jaime Bengoa

— Zer moduz irten zaizkizue dantzak?

— Etxean egiten genituen lehen aldia izan da eta horrek beti jartzen zaitu urduri. Dena den nahiko ondo atera zaizkigu eta pozik gaude.

— Ze zailtasun dute Zuberoako dantzak?

— Zailena oinarri diren bi pausu dira: entresaltak eta kabriolak. Gu ez gaude pausu hoietara ohituta eta asko landu behar izan ditugu. Erritmoa eramatea ere zaila da.



Trumoi eta hodeiekin borrokan egin ondoren, Herriko Plazara heldu zen **Eguzki Laru**, umeen laguna. **Itsas Beltzeko** pirata euskaldunek berriz, Arrasateko portuan egin zuten geldiuinetxo.

Umeen egunean nagusiak ere gustora

Nahiz eta umeen egun izan, nagusiagonek ere izan zuten non gozatu asteartean: Mus, partxis eta futbolin txapelketak jokatu ziren Kondekuan arratsaldean. Lau Bideko zezen plazan berriz, jaialdia egon zen. Mondragon Brass taldeak kaleak alaitu zituen metalezko bere instrumentuekin eta Nick Twilley perkusio taldeak kontzertu polita eskeini zuen jai gunean.

Zuberoako Dantzak jendetza izugarria elkartu zuten Herriko Plazara.



“Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago”

96-97 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK

Alemana, frantsesa, ingelesa eta gainera umeendako nobedadeak ditugu

INFORMAZIOA

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32/79 65 54

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00



Udako ikastaroak eta errekupeazio ikastaroak

ALEMANA • INGELESA • FRANTSESA

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32/79 65 54

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00



Astearte goizeko entzierroa, egun guztietakoa bezela, lasaia, istripurik gabekoa. Arratsaldeko zezen jaialdian koadrila ausart bat: lastoz betetako saku aurrean jarri eta zezenaren adarretara zuzen zuzen.

Jai gunean mus, partxis eta futbolin txapelketak. Partehartzaileak guztiz kontzentratuta...jokua, enbido, ordago, pareak.... burua altxatu gabe.

Gaualdera jai gunean Nick Twilley perkusio taldea. Kitarrak, bomboak... eritmo polit eta atseginak.



Kalitate gorenari leihotzen

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

ORTO + LAGUNEK

*Zugan pentsatzen du,
laguntzen zaitu!*

- Bizkarreko minak ekiditzeko gerrikoak
- "Mariposa" oherako burukoak
- Belauneko bereziak, eusteko eta kirolerako
- Neurrira egindako plantila bereziak, deskantsurako edota edozein arazo motarentzat
- Lanerako zuekoak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34



HERRI BAZKARIA. Ondarroako arrantzaleek 200 kilo marmitako prestatu zuten bazkaria hurbildu ziren 400 lagunendako. Bazkalostean dantza txapelketak egin ziren, baita herriko preso eta deportatuei omenaldia eskaini ere.

Akabo fandangoa!

Hirugarren egunean oraindik bazegoen festarako indarrik eta gogorik. Goizean txarangak ibili ziren kaleak alaitzen, eta arratsaldean ohiko bazkaria egin zen Zaldibarren. Bazkalostean, jakina, pilota desafioa jokatu zen.

Arratsalde aldera musikak hartu zuen tokia: dantzaldia Seberon "Boston" taldearekin, eta "La Txusma" jai gunean. Gauean berriz ere herriko plaza bete egin zen, oraingoan Drindots taldearen eskutik.



Nork esan zuen **Iker Zabaloren**dako jaiak bukatu zirela! Gurasoekin batera arrasatearra herri bazkaria hurbildu zen, eta lore sorta oparitu zioten.

MONTTE®

- Bulego eta taldeetarako ekipamendu orokorra.
- Informatika
- Paperdenda

Pablo Uranga, 1 ARRASATE
Tfnoa: 79 38 22 (2 linea) Faxe: 79 03 54



TXIRRITA

**Jatetxea
Hostala**

Gesalibar auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 10 35 / 79 52 11

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**





Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE



GOI MAILAKO PILOTA PARTIDUAK jokatu ziren Zaldibarran. Joseba Askasibarrek 22 eta 20 irabazi zion Txikito de Benerasi. Eskuz binakakoan Txipas-Alfredo bikotea Rioja-Txikuri izan zuen aurrean eta lehenak nagusitu ziren 22 eta 19.



ATB SEBERON. Beti moduan Arrasate Telebistak platoa jarri zuen Seberon, eta hiru egunetan bertatik eskaini zituen saioak. Magazinak, lehiaketak, jaietako bideoak, bertsolariak... izan zen zer entzun eta ikusi.



HORDAGOA!!! Hainbat urtez Musakolako enaldarrikapenak entzuten egon ondoren, kaletarrek merezi dutena eman zieten astakiloiei. Kartoizko asto bat hartu, kalejiran herriko plazaraino joan, eta han sua eman zioten astoari. Izugarritzko sustoa hartu zuten plazan bildutakoek, astotxoak tripan etxafflerok zituen eta. Astoa sutan zegoen bitartean Musakolako independentziaren aldeko oihuak entzun ziren.

**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

Errentagarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

BANKINTER
A G E N T E A

Lor itzatu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute erretentziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretik batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri aprobezta dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MIKEL LASA Aseguru Artekaría, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxes: 77 10 74

Zer moduz San Juanetan?



Manuel Garcia
Jubilatua
(64 urte)

Ez dakit, ez naiz etxetik irten eta. Seberon ikusi dut telebista apur bat, eta uste dut oso jende gutxi ibili dela.



Pello Urreta
Langilea
(24 urte)

Flojo samar. Iaz ez nintzen hemen egon, baina aurreko urteetan giro hobea eta jende gehiago ibili dela uste dut.



Ana Boisa
Langilea
(27 urte)

Oso ondo. Jota nago. Beste urte batzuetan baino hobeto. Urteak dira ez nuela hain ondo pasatzen, gauza eta giro gehiago egon da.




Xabier Lasaga
Langilea
(35 urte)

Ondo. Beti bezala. Jendea ibili den? orbu bi terdiak arte edo horrela bai, baina hortik aurrera gutxi, geu eta beste ganberro batzuk.



Mertxe Penas
Langilea
(30 urte)

Ondo. Beste urte batzuetan baino gauza gutxiago egon dela uste dut. Su artifizialak, esate batera, dezepzionatu egin ninduten.



Mikel Gonzalez
Ikaslea
(10 urte)

Oso ondo. Beste urte batzuetan baino hobeto, zezenak eta entzierroak gustatu zaizkit gehien. Gutxien gomazko buruhandiak.



Gema Muñoz
Ikaslea
(21 urte)

Etortzen naizen lehenengo urtea da, eta oso ondo pasatu dut. Orokorrean dena gustatu zait.



Janire Sagasta
Ikaslea
(11 urte)

Ondo. Zezenetan pasatu dut ondoen, baita Eguzki Larurakin ere. Beste urte batzuetan bezala ibili naiz.

ANBOTO BODEGA

Anzo giro jatorra!

Anboto, 1 behea
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE

Coain

Errebelatuak Ordubeteen!

Jokin Zaitegi, 8
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 75

ARGAZKI

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tfnoa: 79 11 72

Mondrako emakumeek azkenik mailaz igotzea lortu dute

Ikesi eta Mondrako emakumeek elkarren kontra neurtu zituzten indarrak domekan. Juanina Garaiek zuzentzen duen taldeak partidu erabakiorrean ezin izan zuen mailarik erakutsi eta 3 eta 1 galdu zuen. Madrilgo Federakuntzaren hasierako asmoa betez gero, Mondrak aurkariak baino puntu bat gehiago lortu behar zuen mailaz igotzeko eta hori ez zen gertatu. Hala ere, Mondrako ordezkariak asteazken arratsaldean jakin

izan zuten, azkenik Federakuntzak bertan behera utzi du ezarri nahi zuen aldaketa eta urtero moduan Euskaditik bi talde igoko dira estatu mailara. Bizkaiko Ikesi eta Gipuzkoako Mondra. Zornotzako eta Arrasateko taldeak ligako txapelkunak izan ziren beraz merezita lortu dute mailaz igotzea. Une honetan Mondrako emakumeek beste erronka bati egin beharko diote aurre. Erronka zailagoa baina erakargarriagoa era berean.



Mondrako emakumeek maila berrian datorren denboraldian.



Estatuko txapelketan hiru brontzezko domina igerilariek

Arrasate igerilari taldeko partaideek estatuko txapelketan hartu zuten parte Palma de Mallorcan. Ane Lopez de Bergara, Rosi Dacosta, Esther Gomez, Oihana Orruño, Eneritz Jauregi, Gorka Olaizola eta Celestino Fernandez joan ziren Arrasatetik aletadun txapelketan parte hartzeko. Igerilari guztien artean Ane Lopez de Bergara eta Ibai Orruñok egindako lana azpimarratu behar. Anek brontzezko bi domina lortu zituen ur gaineko 1.500 eta 400 metrotan. Ibai Orruñok beriz, beste hirugarren postu bat 400 metro eskafrandan. Lortutako dominekin pozik itzuli dira herriko igerilariak eta balorazio positiboa egin dute txapelketaren gainean.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Jose Mari Uranga


Egindako lanari saria

Orain dela astebete eman zioten Jose Mari Urangari urrezko domina, "Nire Hautzaroko Arrasate" liburua, bera-ri dedikatuta dagoena, aurkeztu zenean. "Uste dut ez dudala horrelakorik merezi" dio Urangak, baina ezagutzen dutenek badakite urrezko domina ezer gutxi dena egin duen lana eskertzeko. Herriko historia eta euskara iker-tu, zinegotzi izan, kirol talde-tako lehendakari... zer ez ote du egin 80 urteko gizon honek!

- Kostatu zait elkarrizketa hau egiteko zu konbentzitzea! Ez zaizu komunikabideetan agertzea gustatzen.

- Ez dut uste balio handiko gauzarik egin dudarik. Geldirik ez naiz geratu baina ez dut besterik egin. Egin ahal izan dudanarekin okupatuta egon naiz.

-Gaztetatik Zerrajeran egin



duzu lan. Zer zor diozu lantegi horri?

- Ez dakit berak ez ote didan neuri gehiago zor, baina neuk ere zor diot. Dakidana hantxe ikasi nuen. Orain

pena handia ematen dit zein egoeratan dagoen ikustek. Inoiz ez nuen esango horrela bukatuko zuenik.

- Zinegotzi izan zinen.

- Garai hartan sei urtetik sei urtera aukeratzen ziren zinegotziak, baina hiru urtean behin erdiak aldatzen ziren. Lehenengo sei urtez egon nintzen zinegotzi, eta gero beste sei urtez jarraitzeko aukeratu ninduten. Hiru urte pasatu zirenean nekatu egin nintzen eta dimititzeko nahia azaldu nuen. Ez zidaten dimititzen utzi eta ofizialki zinegotzi bezala jarraitu nuen baina Udaletxera joan barik. Orduan etxeko buruen arte-tik, sindikatuetatik eta herri-ko elkartetatik aukeratzen ziren zinegotziak.


- Zelan gogoratzen dituzu zinegotzi izandako urteak?

- Zinegotzi nintzela Arrasate geratu barik haziz eta haziz joan zen, eta Udalak abiadura horri heldu behar izan zion. Udalean sartu nintzenez herriak 10.000 lagun zituen, eta irtetzerakoan 16.000. Garapenarekin era guztiko arazoak sortu ziren, ez zegoen eskola nahikorik, ezta urik ere eta okerrena zera


LENIZ ALUMINIOAK

Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.

Bi orriko atea



Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!



Bi orriko leihoa



Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!

Leihoen neurria Lzurre beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...

Oharra: Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.


Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu

zen: dirua falta zela. Udalak ez zuen gaitasunik egoerari aurre egiteko, garai hartan milioi bateko aurrekontua zuen Udalak eta ez zituen sei langile baino gehiago. Oñati, adibidez, herri askoz ere ederragoa da baina Arrasateri tokatu zitzaiona Oñatiri tokatuko balitzaio ikusi egin behar gaur egun nolakoa izango zen! Arrasaten guztia aguro egin behar izan zen.

Zinegotzi nintzela ahaleginak egin nituen uraren inguruan. Iturburuetatik hartzen genuen uraz bizi ginen, eta hori ez zen nahikoa. Neguan nahikoa genuen Meatzerrekako uraz, baina udan ur faltan egoten ginen. Nik urtegia egin nahi nuen Arrasaten, eta ikerketa batzuk egin ondoren Aramaiorako bidean dagoen Barrautz izeneko tokian egitea proposatu nuen. Proiektuak ez zuen aurrera egin, eta ondoren Urkulukoa egin zen.

- Kirolean ere izan zenuen ardurarik.

- Gerra bukatu zenean



Alkateak urrezko domina jarri zion egindako lana ezkerretako.

herrian izugarritzko banaketa zegoen. Alde batekoen zein bestekoen artean harremanak moztuta zeuden. Kiro-lak egoera hori zertxobait konpon zezakeela pentsatu eta futbol, atletismo, pilota eta txirrindulari kluba antolatu genuen. Inork ez zuen lehen-dakari izan nahi eta niri tokatu zitzaidan ardura hori hartzea. Jakina, futbolak erakartzen zuen jende gehien.

Maalako futbol zelaia berri-tu, jantziak topau eta futbol taldea osatu genuen. Ondoren Eibar, Azkoitia, Bergara, Elgoibar eta Debakoak ere futbol taldeak eratzera animatu genituen. Horrela, Deba Garaiko eta Beheko txapelketa antolatu zen.

Bakoitzak berearekin jarraitu arren kirolarekin beste giro bat piztu zen herrian. Hori lortu izana da bizitzan

dudan poztasun handienetarikoa.

- Fitxajeren bat egin zenuen.

- Futbolari bat gaisotu egin zen, eta txapelketan ondo gindoazenez orduan Bilbon jokatzen zegoen Patri Egidazu Arrasatera ekartzea pentsatu genuen. Bilbora joan nintzen eta presidentek esan zidan jokalaria ez zela lehenengo mailan jokatzea helduko. Mondraueko taldera etorri eta laster fitxatu zuten Realean, lehenengo mailako jokalaria onenetakoa izatera helduz.


- Guzti horretaz gain iker-zetako astia ere topatu duzu.

- Ez naiz ikerlea izan. Udaleko eta Parrokiako artxiboak ezagutzen ditut baina 1.600 urte ingurura heldzen naizenean ezin dut idatzita dagoena ulertu. Euskararen inguruan, berriz, Mondraueko hitzak, aditzak eta esaerak biltzen saiatu naiz. Herriko hizkera galduz zihotala ikusten nuelako egin dut lan hori.

● **“Ez dut uste balio handiko gauzarik egin dudanik. Geldirik ez naiz geratu baina ez dut besterik egin”**



NEKAZALTURISMOA



- Egunero zabalik
- Lau gela bere bainuarekin
- 120 lagunendako jantokia (banketeak, jaunartzeak, ezkontzak, enpresa bilerak...)
- Espezialitatea: haragi eta arrain parriladak

Zabola, z/g • Tfnoa: (945) 44 50 95 • ARAMAIO (Araba)



Olarte, 41 • ARRASATE • Tfnoa: 79 55 05

Lanpostua

AED Elkarteak **pertsona bat kontratatu nahi du** egun erdiz Kultura eta Sentsibilizazio Sailean lan egiteko.

Interesatuok bidali curriculuma irailaren 1a baino lehen Pablo Uranga, 6 behea edo 77 12 28 telefonora dei egin.



TOUR PORRA MUNDIALA!

Oinarriak

1- Parte hartzeko orrialdearen behealdean dagoen txartela bete, ebaki eta **ARRASATE PRESS** edo **ARRASATE TELEBISTARA** bidali edo ekarri beharko da, ekainaren 30a baino lehenago. Porra asteartean jarriko dugu martxan.

2- Pertsonako txartel bakarra onartuko dugu. Beraz, etkeko denak edo kuadrilan jokatu nahi izanez gero, fotokopia atara beharko duzue.

3- Taldekako etapak ez dira kontuan hartuko.

4- Egunen batean bi sektoreko etaparen bat egonez gero, bi etapa balira bezala hartuko dira.

5- Etapa bakoitzeko mailot bat banatuko da eta Porraren irabazleak **LIZARRALDE KIROLAK**ek oparitutako **MENDIKO BIZIKLETA EDER** hori eramango du.



Banesto

1 Miguel Indurain
2 Marino Alonso
3 Vicente Aparicio
4 Jose Luis Arrieta
5 Pruden Indurain
6 Jose M. Jimenez
7 Carmelo Miranda
8 Orlando Rodrigues
9 Jose Ramon Uriarte

Agrigel-La Creuse-Fenouix

11 J. Francois Bernard
12 Jean Pierre Bourgeot
13 Jean Claude Colotti
14 Jackie Durand
15 Herve Garel
16 Thierry Laurent
17 Thierry Marie
18 Jean Luc Masdupuy
19 Michel Vermote

Aubervilliers 93 - Peugeot

21 Ludovic Auger
22 Herve Boussard
23 Laurent Genty
24 Thierry Gouvenou
25 Marek Lesniewski
26 Jean Miche Monin
27 Cyril Saugrain
28 Gilles Talmant
29 Francisque Teyssier

BresciaIat

31 Zenon Jaskula
32 Alessandro Bertolini
33 Fabrizio Bontempo
34 Claudio Camin
35 Federico de Beni
36 Fausto Dotti
37 Cristiano Frattini
38 Luca Gelfi
39 Mariano Piccoli

Carrera

41 Claudio Chiappucci
42 Stefano Checchin

43 Mario Chiesa
44 Giovanni Fidanza
45 Petter Luttenberger
46 Oscar Pelliccioli
47 Samuele Schiavina
48 Marcello Siboni
49 Enrico Zaina

Panaria-Vinavil

51 Vladimir Belli
52 Alessandro Baronti
53 Davide Bramati
54 Oskar Camenzind
55 Roberto Conti
56 Valentino Fois
57 Sergio Previtali
58 Zbigniew Spruch
59 Jan Svorada

Refin

61 D. Abdoujaprov
62 Mauro Bettin
63 Stefano Colage
64 Heinz Imboden
65 Sergei Ouslamine
66 Leonardo Piepoli
67 Lo Planckaert
68 Fabio Roscioli
69 Cristian Salvato

Festina-Lotus

71 Richard Virenque
72 Laurent Brochard
73 Laurent Dufaux
74 Stephane Gouvert
75 Stephen Hodge
76 Joana Lauka
77 Emmanuelle Magnien
78 Christophe Moreau
79 Jean Cyril Robin

Gan

81 Chris Boardman
82 Stephane Heulot
83 Francois Lemarchand
84 Francis Moncassin
85 Francis Moreau
86 Didier Rue
87 Gerard Rue

88 Eddy Seigneur
89 Francois Simon

Gewiss-Playbus

91 Eugeni Berzin
92 Viadislav Bobrik
93 Dario Bottaro
94 Bruno Cenghialta
95 Francesco Frattini
96 Ivan Gotti
97 Nicola Minali
98 Alberto Volpi
99 Stefano Zanini

Kelme-Artiach

101 Fernando Escartin
102 Julio Cesar Aguirre
103 Hernan Buenahora
104 Francisco Cabello
105 J. J. Castilblanco
106 Laudelino Cubino
107 Chepe Gonzalez
108 Federico Muñoz
109 Rafael Ruiz Erenica

Lotto

111 Andrei Tchmile
112 Peter Farazin
113 Thomas Fleischer
114 Oleg Koztilline
115 Nico Mattan
116 Scott Sunderland
117 Paul Van Hifte
118 Peter Verbeken
119 Marc Wauters

Mapei-GB

121 Tony Rominger
122 Fede Etxabe
123 Manuel Fdez. Gines
124 Arsenio Gonzalez
125 Paolo Lanfranchi
126 Johan Museeuw
127 Abraham Olano
128 Andrea Taffi
129 Jon Unzaga

Maglificio MG

131 Fabio Baldato

132 Michele Bartoli
133 Michele Coppolillo
134 Alberto Elli
135 Fabiano Fontanelli
136 Rolf Jaermann
137 Roberto Pistore
138 Pascal Richard
139 Marco Saligari

Motorola

141 Lance Armstrong
142 Frankie Andreu
143 Georget Hincapie
144 Laurent Madouas
145 Jesus Montoya
146 Andrea Peron
147 Maximilian Sciandri
148 Bruno Thibout
149 Flavio Vanzella

ONCE

151 Laurent Jalabert
152 Inigo Cuesta
153 H. Diaz Zabala
154 Aitor Garmendia
155 Patrick Jonker
156 Melchor Mauri
157 Roberto Sierra
158 Neil Stephens
159 Alex Zulle

Polti

161 Luc Leblanc
162 Dirk Baldinger
163 Rossano Brassi
164 Gerri de Vries
165 Mirco Gualdi
166 Giuseppe Guerini
167 Frederic Guesdon
168 Daisuke Imanaka
169 Sergel Ouschakov

Radobank

171 Erik Breukink
172 Johan Bruyneel
173 Erik Dekker
174 Vjatceslav Ekimov
175 Rabbie Mc Ewen
176 Danny Nelissen

177 Arvis Piziks
178 Rolf Sorensen
179 Lean Van Bon

Roslotto-ZG Mobil

181 Piotr Ugrumov
182 Stefano Catta
183 Andrea Ferrigato
184 Marco Fincato
185 Maurizio Fondriest
186 A. Gontchenkov
187 Pascal Lino
188 Paolo Savoldelli
189 Marco Zen

Saeco

191 Mario Cipollini
192 Simone Biasci
193 Giuseppe Calcaterra
194 Giorgio Furlan
195 Massimiliano Lelli
196 Silvio Martinello
197 Roberto Petito
198 Eros Poli
199 Mario Scirea

Telekom

201 Bjarne Rijs
202 Rolf Aldag
203 Udo Bolts
204 Christian Henn
205 Jens Heppner
206 Briam Holm
207 Mario Kummer
208 Peter Meinert
209 Erik Zabel

TVM

211 Jeroen Blijlevens
212 Maarten Den Bakker
213 Bo Hamburger
214 Servais Knaben
215 Vladimir Poulnikov
216 Hendrik Redant
217 Laurent Roux
218 Peter Van Petegem
219 Bart Voskamp

Begira zelako mendiko bizikleta dotorea prestatu duten Lizarralde Kirolak enpresaren irabazlearentzat!



Izena

Helbidea

TOUR PORRA MUNDIALA!

Tfnoa

	Dortsala	Txirrindulariaren izena
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		

Etxebizitzak

- **Torrebiejan apartamentua alokatzen da.** Guz-tiz jantzita eta hondartzatik gertu. Tfnoa: 78 14 72.
- **Alokatutako pisu bat osatzeko jendea behar da.** Tfnoa: 79 86 06. Mikel.
- **Pisu bat alokatuko nuke.** Tfnoa: 79 84 40. Aitzol.
- **San Andresen etxebizitza salgai.** Tfnoa: 79 98 73.
- **Laredon apartamentua alokagai** San Juanean. Tfnoa: 79 31 47.
- **Bungalowa alokagai Peñiscolan** uztaila eta irailean. Tfnoa: 77 05 88.
- **Garajea alokatuko nuke** Erguin-Larrea auzo inguruan. Tfnoa: 79 41 29.
- **Makatzenan etxebizitza salgai.** Jantzita, 3 logela, egongela, berogailua... Tfnoa: 79 79 86.
- **Makatzenan etxebizitza salgai.** Orainxe guztiz berriztuta. Berogailua, egurrezko lurra, PVC, 3 logela, ganbara, lorategia... Tfnoa: 79 07 64.
- **Etxebizitza salgai Arrasaten.** Tfnoa: 79 36 53.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan.** Tfnoa: 79 61 15 (gauzez).
- **Pisu txiki bat alokagai Zarugalden.** 40.000 pta. Lo egiteko baina sukaldia erabilpenik gabe. Tfnoa: 79 67 65.
- **Pisua salgai Cordoba y Oro kalean** (San Andres). 3 logela, egongela, sukaldia, berogailua... Tfnoa: 79 67 65. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Donostian apartamentua alokagai** abuztuan. Tfnoa: 21 22 68. Inda.
- **Ikasturterako pisua alokatzen da Donostian.** Oso merkea. Tfnoa: 71 50 87.

Lana

- **Neska gaztea lan egiteko gertu** (sukaldia, etxe garbiketan...). Zuzendu Ferrerías kaleko 30, 2.
- **Emakumea etxeko lanak** egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 67 37 80. Gauzez dei egin.
- **Unzueta jatetxean** (Zabola) sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. Tfnoa: (945) 44 50 95.
- **Udan OHoko klase partikularrak** emango nituzke, euskaraz nahiz erdaraz baita umeak zaindu ere. Tfnoa: 77 13 77.
- **Uztailan eta abuztuan OHoko klase partikularrak** ematen dira. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 25 09. Ana.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 48 12.
- **OHoko klase partikularrak.** Tfnoa: 79 69 41.
- **OHoko klase partikularrak ematen dira.** Nahiz izanez gero zure etxera joango naiz. Tfnoa: 79 47 35. Patxi.
- **BUPEko euskara, latin, literatura eta ingelesezko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 77 13 77.
- **8.mailako arte klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 79 53 58.
- **Emakumea gertu etxeetan lan egin** edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 27 48.
- **Klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 06 39.
- **Klase partikularrak emateko prest** uztaila eta abuztuan, euskaraz nahiz erdaraz, edozein ikagai ingelesa kenduta. COUra arteko maila. Tfnoa: 79 46 75 / 79 23 36. Amaia.
- **Esperientzia duen neska behar da** uztailan arropadenda baten lan egiteko. Tfnoa: 79 59 78.

Salerosketak

- **Kanpinerako karroa salgai.** Sei plazakoa eta egoera onean. Dei egin 20.30etatik aurrera 79 99 53ra.
- **Fagor markako mikrozeramikako** plaka berria salgai. Prezio egokia. Tfnoa: 79 95 79.
- **Komertziorako baliagarriak** diren kristalezko estanteriak salgai. Tfnoa: 79 65 31.
- **Eskulanak egiteko larrua salgai.** Tfnoa: 79 65 31.
- **Citroën AX, SS-AM autoa salgai.** Oso prezio ona eta urtebeteko garantiarekin. Tfnoa: 79 18 18 edo (908) 57 93 86.
- **Yamaha XS-400 motoa salgai.** NA-M. Egoera ona ITV orain dela gutxi gaudituta. 150.000 pta. Tfnoa: 79 18 53. Jabi.
- **Aguerre markako pianoa salgai.** 80 urte ditu. Lan orduetan. Tfnoa: 76 15 58. Juan.
- **Kanpinerako jantzita dagoen** Nissan Vanettea salgai. Tfnoa: 79 03 93.
- **Kawasaki motoa salgai. ZZR-600.** Ondo zainduta. 550.000 pta. Kaskoa opari. Tfnoa: (908) 57 64 83. Josean.
- **Kanpineko karro-denda alemana salgai.** Tfnoa: 71 43 86.
- **Kawasaki 500 GPZ motoa salgai.** SS-AB. Tfnoa: 76 47 74. Joxe Migel.
- **Zaldiak saltzen dira.** Tfnoa: 79 61 15. Gauzez.
- **TA 2212 fotokopiagailua salgai.** Oso gutxi erabilia. 105.000 pta. Tfnoa: 79 08 45.
- **ECR 375 kutxa erregistradorea salgi.** 65.000 pta. Tfnoa: 70 08 45.
- **Premier bateria osoa salgai.** Signia modeloa. Oso egoera onean. Urte térdi dauka eta oso onda zainduta dago. Tfnoa: 14 79 79.

Aste Gazte

Bekak

- “Ernest and Young” merkaturatu arloan prestatzeko 20 beka deialdia, Ekonomia, Enpresa Zientzietan edo Goi Injenerutzan lizentziatuei zuzenduta. Epea: uztailak 5
- Estatu Batuetan graduosteko ikasketak egiteko bekak, ingurugiro arloan batez ere. Baldintzak: goi mailako titulazioa (91ko ekainetik aurrerakoa) eta ingelesa menperatzea. Epea: uztailak 9

Lana

- “Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Zaingoak” zuzen-

dari-kontserbatzaile lanpostu bat kaleratu du. Unibertsitateko goi-mailako titulazioa; hiru urtetako esperientzia alor publikoan edo pribatuan eta Urdaibaiko Biosferaren Babesgune-ri buruzko lan-proiektu baten aurkezpena egitea eskatzen da. Epea: uztailak 2

• Nafarroako Foru Erkidegoak, sistema informatikoen goi teknikari baten lanpostua kaleratu du. Epea: uztailak 3.

Lehiaketak

- Kartel lehiaketak: a) Donostiako Aste Nagusia. Epea: uztailak 10.

b) Donostiako Su artifizialak. Epea: uztailak 10.

c) Donostiako Egia auzoko “Porronxo” jaiak. Epea: uztailak 22.

d) Zizurkilgo jaiak. Epea: uztailak 15.

• “Imajina ezazu Euskadi IX. Ekitaldia”, Banco Central Hispanok deituta. Margolaritza, argazkigintza, poesia eta ipuinak. Guztien epea: irailak 30.

• “Gazteak eta Intumisia” VII. argazki lehiaketa. Bi kategorioa: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuri-beltzean zein koloretan. Epea: urriak 11.

“Hogei urterekin, munduko enigma ebatsi duela uste du pertsonak; hogeita hamarrekin, berari buruzko hausnarketa egiten du, eta berrogeirekin ebastezina dela konturatzen da”

AUGUST STRINDBERG,
IDAZLE SUEDIARRA

Informazio gehiago:
GAZTE
ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Uztaileko kultur ekintzak Monterron Parkean

Zinea

Gaueko 10.30etan. 400 pta. (Gazte-Txartelarekin 350 pta.)

- ★ 4ean **“ASESINOS NATOS”**
- ★ 12an **“JUSTINO, UN ASESINO DE LA 3ª EDAD”**
- ★ 18an **“BRAIN DEAD”**
- ★ 25an **“DIAS CONTADOS”**

Antzerkia

Gaueko 10.30etan.
800 pta. (Gazte-Txartelarekin 600 pta.)

- ★ 12an **Tattan Club taldearen**
“FRANKESTEIN”
(Iñaki Unamuno arrasatearraren partaidetzarekin)

Dantza

- ★ 19an **LORE GAZTEAK**
- ★ 23an **BASKIRIA ERREPUBLIKAKO**
TALDE FOLKLORIKOA
Gaueko 10.30etan.
800 pta. (Gazte-Txartelarekin 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



FAGOR 



**KONTZEPTU
BERRIA**

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42